



# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Atea bakarrik ixteko zerbaiten beharrea dauden gazteei zuzenduta dago "BETITXITA". Hau, atea automatikoki ixteko aparatu bat da. Atea ixteko mekanismo honek, beste ate konplexua/ek ez bezala teknikoki sinpletasuna eta ekonomikoki eskuragarritasuna eskaintzen du, merkea baita.


Funtzionamendua sinplea da. Atearen markoan atea tiratuko duen soka bat jartzen da eta sokaren beste puntan, kontrapisua egongo da, non, atea irekitzerakoan, pisu honek, atea bultzatuko duen atea itxi arte.

Orokorrean, portaletako ate gehienak bakarrik ixten dira baina mekanismoa atearekin batera dator. "BETITXITA" aldiz, portatila da, hau da, jarri eta kendu daiteke norberaren erosotasunaren arabera. Gainera, atearen itxura, tamaina eta materialaren arabera, produktuaren egitura eta diseinua aldatzen da honi egokitzeko.



<https://drive.google.com/drive/folders/1ePeMzxbFjPbtA9WeBYjbBRFKURYQ2d5J>

Ondoko argazkietan ikusi daiteke, "BETITXITA" enpresak saltzen duen produktuaren diseinua. Ikuspuntu desberdinetatik ikusita, mekanismoaren funtzionamendua ulertu daiteke. Sokatik zintzilik dagoen pisua da, atea ixtea eragiten duena. Poleak soka mugitzea ahalbidetzen du, ondorioz pisua ere mugitzen.



Eroslearen atearen arabera jartzen den pisua moldatu behar da, egoera bakoitzean ez delako pisu kantitate bera erabiliko. Erosleak ere, pisuaren itxura aldatzeko aukera izango zu, kolore zehatz bat izanez gero, edo itxura berezi batekoa, orduan aukera izango du bere nahiera aldatzeko. Hau da, pisuaren itxura eta kg kopurua, hautagarria izango da.